


# Zibervanpiro abusatzailea



Ongi etorri, zibernauta txikiok,… ziberbanpiroen mundu beldurgarrira!



Horrela, gure pantailetara iritsi ahal izango dira, eta bertan sartu ahal izango dira..., gure lepo babesgabean gorpuztu ahal izateko! Zer gozo dagoen!



... gure lepo babesgabean gorpuztu ahal izateko! Zer gozo dagoen!





Ez izan beldur, ordea. Teklatuaz Bestaldeko Unibertsitatean doktoratutako banpiro-ehiztari aditua naizenez, ikasgai izango dituzuen istoriotxoak azalduko dizkizuet, zuongana iritsi ez daitezen.

Arretaz jokatu ez zuten beste gaztetxo batzuen istorio beldurgarriak dira...





Hori dela eta, ziberbanpiroen askaria izan ziren!

ZIBERBANPIROEN istorio ilunetan murgilduko gara!!!






**Munduko maltzurrok, idatz iezadazue!**

Jo, txatengerra jarri behar dut, eskolan denek erabiltzen dute eta.






Ederto, jarrita dago. Orain, kontua sortu beharko dut nire posta-helbideaz… Tira, kontua sortu dut azkenean… Aspergarria, benetan! Orain, txateatzen hasiko naiz

Nire profil publikoa. Izena: Javier Bilbao … Jaioteguna: 1997ko irailaren 30a. Helbidea: Ilegalen etorbidea, zenbakirik gabe. Bilbo… Beste datu batzuk: Arriaga eskolan ikasten dut, futbolean jokatzen dut eta oso gustuko ditut animaliak…

| | |
|---|---|
|  |  |
| Eeeez... lagun gehiago egin nahi ditut: nahi duen guztiak idatz diezadala! | Uy, mezua... Nor ote da? |
|  |  |

Zein izan da akatsa?

- Txatengerrak birusa zeukan
- Gure protagonistak ez ditu datu guztiak eman edo gezurrezkoak ziren
- Txatengerra ez da modu seguruan konfiguratu
- Txatengerra ez dago eguneratuta
- Bill Gates haserretu egin da







**TXATENGERRA EZ DA MODU SEGURUAN KONFIGURATU**

Gure laguntxoak arretaz jokatu ez zuenez, ziberhanka sartu zuen bi aldiz. Hasteko, bere datu asko eman zituen txatengerreko profilean, eta hori arriskutsua da.






Hori guztiori gutxi balitz, mundu guztiari eman zion aukera noiz zegoen konektatuta jakiteko eta mezuak bidaltzeko... bai eta ezezagunei ere! Ziberbanpiroa zelatan dago beti, eta akats horiez baliatu zen bapo-bapo jateko.

Adi-adi egon! Irakasleei, aitari edo amari eskatu txateko programak konfiguratzeko laguntza!

| | |
|---|---|
|  |  |
| **Gertaera ustela** | Ja, ja, jende honen lepotik barre egingo dut tarte batean... Tuscantekoak omen dira. |
|  |  |
| Ikusiko dute! | Kaixo, zelan? Tuscantekoak zarete? |






Ez nuen herri hori ezagutzen...

... harik eta zirkulazioa hobetzeko errepidean baratxuriak landatzen dituzuela esan didaten arte. Leloak halakoak!!!






**Zein izan da akatsa?**

- Ez zuen inoiz txatean inor iraindu behar, txantxetan ere ez
- Baratxuriaren eta zirkulazioaren txistea oso ezaguna zen eta ez zuen barrerik eragiten
- Txatean inorekin sartu baino lehen, laguntza bilatu behar zuen
- Arazorik gabe iraintzeko, pasahitz faltsua erabili behar da
- Iraintzean, sudurra hazi eta pantaila hautsi zuen







**EZ ZUEN INOIZ TXATEAN INOR IRAINDU BEHAR, TXANTXETAN ERE EZ**

“Inork txatean inor iraintzen badu, jugularrean egingo diote haginka”, netiketako pergamino zaharretan dioenaren arabera.






Neska honi ahaztu egin zitzaion, eta ziberbanpiroaren madarikazioa abian jarri zen.

Beraz, edukazio onekoak eta atseginak izan eta kontu handiz ibili tekleatzen duzuenarekin, horrela amaitu nahi ez baduzue.






# Ez eman bilatzen dutena

Itzel! Posta misteriotsua daukat.
Ederto!... Norena ote...?






"Sandrita maitea, ikastetxeko pinpirinena zarenez, aukeratu egin zaitugu...

... Soineko polit hori arrautza ustelez zikinduko dizugu egunotako batean, etxera bidean zoazela. Badakigu non bizi zaren. Izenpetua: Umemokoen aurkako Taldea"






Zer gertatzen da, Sandra, laztana? Arazorik ordenagailuarekin?

Ez… ez da ezer… ez da ezer gertatzen.

Talde maitea, ezer egiten badidazue, nor naizen jakingo duzue. Badakit nortzuk zareten eta ez dizuet inolako beldurrik. Ergelak halakoak!!!






**Zein izan da akatsa?**

- Amaieran, ez zuen esan behar ergelak zirela
- Ez zien esan behar bazekiela nortzuk ziren, argi eduki nahiz ez eduki
- Poliziari deitu behar zion zuzenean
- Erantzutean, egoera larriagotu zuen, besterik gabe. Aitari edo amari esan behar zion
- Erasotzeko laguntza eskatu behar zien lagunei






**ERANTZUTEAN, EGOERA LARRIAGOTU ZUEN, BESTERIK GABE. AITARI EDO AMARI ESAN BEHAR ZION**

Neska honek bila zebiltzana eman zien abusatzaileei: erantzuna.






Inolako jaramonik ez egitea abusatzaileak izorratzeko modu egokiena da. Horrez gain, beti izan behar da kontuan gurasoak eta irakasleak egoerari aurre egiten laguntzeko daudela.

Horrela, ez diozu ziberbanpiroari aukerarik emango eta ez da zure lepoaren bila hegan etorriko!






**Boomerang-hitzak**

Tira, ikusi duzu zeinen erraza izan den? Orain, zeure bloga egin behar duzu, nahi duzuna nahi duzunean argitaratu ahal izateko.






Ander Martín, 4. A-koa, lodi-lodi dagoenez, ez da aulkian sartzen. Lehengoan, motxila kendu genion eta barruan zer zeraman begiratu genuen, jolasaldian zer jango zuen jakiteko. Ikaragarria izan zen!!

Inoiz ikusi dudan txorizo-ogitarteko handiena zeukan, bai eta txokolatezko palmera eta esne-gainezko opila ere.




Ezizen berria jarri diogu: Jatuna




Pasatu!!!






**Zein izan da akatsa?**

- Ez zuen blogean gezurrik esan behar. Inork ez du hainbeste jaten jolasaldian!
- Norbaiti buruzko gauza txarrak esateko, e-posta erabili behar zuen
- Ez zuen esan behar zer ikasgelatakoa zen hizpide zeukan mutila
- Interneten, ez da inoiz inoren lepotik barre egin behar eta ez da inor iraindu beha
- Beste baten izenean argitaratu zuen hori







**INTERNETEN, EZ DA INOIZ INOREN LEPOTIK BARRE EGIN BEHAR ETA EZ DA INOR IRAINDU BEHAR**

Guretzat edo beste batzuentzat arriskutsua izan daiteke orri pertsonala edo bloga edukitzea, zer pentsatzen dugun edo zer gertatzen zaigun azaltzeko.






Mutil honek ez zuen kontuan hartu nolako mina eragin zezakeen eta ondorioak oso larriak izan zitezkeela.

Ziberbanpiroek ez dute sekula barkatzen!